



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

MASTER AMAIERAKO LANERAKO GIDA. GUÍA DEL TRABAJO FIN DE MÁSTER

**Unibertsitate Masterra:
Gizarte eta Hezkuntzako
Eremuen Ikerketa
2018-2019**

www.ehu.eus



AURKIBIDEA

	Or.
1. XEDEA ETA HELBURUAK	5
2. MASTER AMAIERAKO LANAREN GAIA, IKERKETA LERROAK ETA GAIA AUKERATZEKO PROZEDURA	6
3. MASTER AMAIERAKO LANAREN EGITURA ETA LANA IDAZTEKO TA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK	8
4. MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK	10
5. 5.- MASTER AMAIERAKO LANA DEFENDATZEKO BETE BEHARREKOAK	12
6. MASTER AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIOA ETA DEFENTSA	12
7. EGUTEGI LABURBILDUA	14
8. ERANSKINAK	15

1.- XEDEA ETA HELBURUAK

Master Amaierako Lana (aurrerantzean MAL), jarduera akademikoetako bat da, banaka egin beharrekoa, eta 12 ECTS kreditu ditu (300 ordu). Ikasleak ikerketan hasteko lan bat egin behar du masterreko irakasle baten zuzendaritzapean (tutorea izango da).

MALaren helburua da frogatzea ikasleak lortu dituela masterreko irakasgaietan landutako ezagutza eta gaitasunak, eta prest dagoela hezkuntza arloko ikerketa egiten hasteko. Era berean, arautegiari jarraituz, MALean ikasketa planean zehaztutako gaitasunak eta ezagutzak islatu behar dira.

Gaitasun horiek, hain zuzen ere, ondokoak dira:

514.- Ikaslea gai izatea gizarte eta hezkuntza eremu batean, testuinguru batean, datu garrantzitsuak biltzeko eta interpretatzeko, eta arazo pedagogikoei buruzko iritzi oinarrituak emateko.

515.- Ikaslea gai izatea informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak azaltzeko adituei nahiz aditu ez direnei.

516.- Ikaslea gai izatea ikerketa arloko prestakuntzan ikasketako trebetasunak lantzeko.

MALa banaka egin behar da eta jatorrizkoa izan behar da; ezin izango dute, ezelan ere, egile batek baino gehiagok sinatu. Bestalde, indarreko legediari jarraituz, MALa lan intelektualala da, jabetza intelektualari buruzko legeak babestua; beraz, lanaren kopia aurkeztu beharko da, masterreko idazkaritzan gorde eta babes dezaten, eta formatu digitalean kontsultak egin ahal izango dira masterrekoek berek adierazitako lekuetan.

Azkenik, lan honek plan osoa biltzen duenez, ezin izango da lana aurkeztu ez ebaluatu harik eta masterreko ikasketa planean jasotako gainontzeko irakasgai guztien kredituak gainditu arte.

2.- MASTER AMAIERAKO LANAREN GAIA, IKERKETA LERROAK ETA GAIA AUKERATZEKO PROZEDURA

MALaren helburua da ikasleak lan bat egitea horren bidez erakusteko, batetik, irakasgaietan lortutako ezagutza eta gaitasunak, eta, bestetik, hezkuntza eta gizarte arloko ikerketa gai bat ahoz eta idatziz azaltzeko gaitasuna daukala.

Gai zerrenda luzea denez eta ikasketen egitura zabala, Akademia Antolakuntzako Batzordeak ikerketa lerro batzuk zehaztu ditu, hartara ikasleak eskaria egin dezan bere MALa bideratzeko eta proposamena adosteko MALerako aukeratu duen zuzendariarekin.

Ikerketa lerroak hiru zutabe handitan banatu dira, masterreko irakasleek egindako ekarpenei jarraituz:

1.- Ikastetxeak eta gizarte testuinguruak

- Familien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren adierazleak, eta horien eragina etekin akademikoan.
- Balio erantsi handiko ikastetxeetako ohitura onen katalogoa.
- Nazionalismoa eta hezkuntza; hezkuntzaren historia Euskal Herrian.
- Diseinu mistoen erabilera (kuantitatibo-kualitatiboak) hezkuntzako ikerketa eta ebaluazioan.
- Proiektu curricularren diseinua eta horiek praktikan ipintzea gaitasunak lantze aldera.
- Oinarrizko gaitasunak garatzeko European dauden politiken analisi konparatiboa.
- Hezkuntza eskubidea eta hezkuntza sistemak
- Ikaskuntza komunitateak eta eskola kirola.
- Telebista dieta, identitatea eta baloreak: testuinguru eta generoen arteko aldeak; alfabetizazio mediatikoa eta balioak: hezkuntzako esku hartzerako proposamena edo
- Autonomia eta tratu onak; eskubideak, erantzukizuna eta parte hartzea.
- Proiektu profesionalak eta bizitza proiektuak egitea oinarri hartuta DBH, batxilergo eta lanbide heziketako ikasleak, eta generoaren eta aukera berdintasunaren ikuspegitik.

2.- Lanbide prestakuntza hezkuntzaren eremuan

- Gizarte eta hezkuntza inklusiboaren arloan parte hartzen duten profesionalen prestakuntza eta profesionalen sareak.
- Hezitzailearen harreman trebetasunen arloko prestakuntza testuinguru ez formaletarako.
- Ikerketa arlo honetan: hezitzailearen harreman trebetasunetarako prestakuntza testuinguru ez formaletarako.
- Etengabeko prestakuntza eta bizitza osoko prestakuntza.
- Sormen gaitasunen garapena
- Garapen profesionala eta irakasle identitatea; garapen instituzionala.
- Hezkuntza agenteen etengabeko prestakuntza.
- Eskola eta lan munduaren arteko trantsizioan esku hartzea, ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan.

3.- Gizarte eta hezkuntza eremuko agente eta taldeak

- Gizarte eta hezkuntza zerbitzuen antolaketa.
- Nerabetasuna-gaztaroa.
- Hezkuntza inklusiboa; eskusio/inklusioprozesuak ahulagoak diren taldeen kasuan.
- Haurtzaroaren historia; haurren eskubideak, ikuspegi teorikoa eta aplikatua.
- Ikaskuntza komunitateak.
- Aldaketa sozialak eta instituzionalak.
- Ezgaitasun intelektuala... zerbitzuak, bizi kalitatea.
- Gurasotasuna eta garapen soziopertsonala arriskuko egoeratan eta gizarte babesgabetasuna; gurasoen prestakuntza programen diseinua, garapena eta ebaluazioa.
- Gaitasunetan eta balio soziopertsonaletan hezi.
- Enplegua eta lanbidea ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan.
- Emozio positiboak ezbeharretan; emozio positiboak, hezkuntza eta ongizatea. Esku hartzea gizarte eta hezkuntza eremuetan emozio positiboak bultzatzeko.

Hiru gai multzo nagusi horiek izango dira irakasle bakoitzak egingo dituen proposamen ikerketa lerroak; ikasleei ere helarazi zaizkie, zehaztuta irakaslearen posta elektronikoa, hartara ikaslea harremanetan jar dadin irakaslearekin eta aukeratutako proposamena adieraz diezaion. Ikasleak 1. eranskina bete beharko du (*Eskaria: Master Amaierako Lanerako gaia*) bertan zehaztuta aukeratutako hiru ikerketa lerroak (bere gurariaren arabera ordenatuak), eta idazkaritzara bidali.

Ikaslearen eta zuzendariaren arteko lankidetzaren behin adostuta, ikerketa lerro nagusia aukeratu eta, baiak ados jarrita, gai zehatza

definituko dute. Horrela, masterreko ikasleak ikerketaren arloan bere bidea egingo du irakaslearen ikerketa espezialitatearen eremuan. Adostasun hori 2. eranskinean jasoko da (*Master Amaierako Lanaren Nondik Norakoak*). Agiri horretan ondokoak zehaztu beharko dira: ikaslearen datu akademiko eta pertsonalak, lanaren gutxi gorabeherako izenburua, 15 lerro inguruko laburpena, lana nola egingo duen eta nola garatuko duen azalduz, bibliografia garrantzitsua, ikaslearen jatorrizko sinadura eta irakaslearen sinadura oniritzia emanaz, eta bi aldeek lan hori aurrera eramateko daukaten konpromisoa.

Ikaslearen betebeharra da 2. eranskinaren kopia eskaneatua bidaltzea masterreko idazkaritzara, horretarako zehaztutako epean.

3.- MASTER AMAIERAKO LANAREN EGITURA ETA LANA IDATZI ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

MALak egitura egonkor eta nahiko zurruna dauka bai lana antolatzeko eran bai lana aurkezteko moduan; ikasleak, zuzendariaren laguntzarekin, bete egin beharko du hori lana errazte aldera. Horretarako, beste master batzuetako irizpide berak ezarri dira, esaterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako prestakuntza masterretakoak.

MALaren diseinurako eta lana idazteko, ondokoak dira lana egituratzeko jarraibideak:

- Azalean zehaztu beharrekoak: masterraren izena, espezialitatea, Master Amaierako Lanaren izenburua, egilea (izena eta bi abizen), lanaren zuzendaria eta deialdia (3. eranskina). (Atzeko aldea zuri)

- 200-300 hitzeko laburpena lana idazteko erabiliko den hizkuntza berean, eta ingeleseko itzulpena (Abstract-a). (bakoitian hasi; behar izanez gero, atzeko aldea zuri).
- Aurkibidea orrialdeak zehaztuta (ez da jaso behar ez azala, ez aurkibidea). (bakoitian hasi; behar izanez gero, atzeko aldea zuri).
- Sarrera: motibazioa, helburuak, lanaren egitura. Helburua/Xedea. Lortu nahi diren helburuen nondik norakoak edo lanak oinarri duen arazoa. Gaiaren interesa eta egokitasuna. Irakasle lanbidearekin daukan lotura. MALaren aurkezpen orokorra, atal banaketaren ikuspegi osoa emanda. (bakoitian hasi).
- Gaiaren egungo egoera eta oinarri teorikoak. (aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar).
- Metodologia. Ikerketako galderak. Hasierako hipotesiak. Datuak biltzeko tresnak. (kasuan kasukoak). (aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar).
- Lortutako emaitzen analisia eta interpretazioa, edo, egoki bada, emaitza horien erabilera praktikoa. (aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar).
- Ondorioak: lanaren edukirik garrantzitsuenen aurkezpena, mugak eta etorkizunean, beste lan batzuk egitean, izan ditzakeen inplikazioak. (aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar).
- Esker ona: esker onik eman behar izanez gero, paragrafo labur batean bildu. (aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar).
- Bibliografia: Lana egiteko erabili den bibliografia bildu behar da orden alfabetikoan jasota eta APA arauari jarraituta. (4. eranskina). (aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar).

- Eranskinak (lanaren amaieran bilduko dira, egoki iritziz gero, erabilitako galdera sortak, ikasleen lan laginak, materialak, horiei buruzko informazioa eta abar) (bakoitian hasi).

MALa idatzi eta aurkezteko jarraibiderik garrantzitsuenak:

- Hizkuntza: MALa gaztelaniaz edo euskaraz idatzi ahal izango da; ikasleak berak aukeratuko du hizkuntza zuzendariarekin ados jarrita.
- Lanak bertsio digitalean aurkeztuko dira, pdf formatuan. Ikerketaren ezaugarriak edo frogen ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkoa bada, eranskinak gehitu ahal izango dira beste euskarri fisiko batzuetan.
- Lanak, gutxien dela, 50 orri izango ditu eta, gehienez, 75 (75.000-125.000 karaktere espazioak kontuan hartu gabe).
- Orriak zenbakitu egin behar dira (azala eta aurkibidea ez dira zenbakitu behar).
- Letra tipoa eta tamaina: EHU Serif Euskaraz eta EHU Sans gaztelaniaz, 11 puntu.
- Lerroartea: 1,5; lerro zuririk utzi gabe paragrafoen artean. Lerro zuria utziko da izenburu baten eta lehenengo paragrafoaren artean, eta aipamen luzea egiteko erabili den aparteko paragrafoaren hasiera eta amaieran (horrelakorik dagoenean).
- Lerrokatze justifikatua testu osoan (baita oin oharretan ere).
- Marjinak: 3 cm goiko eta ezkerreko ertzean; 2,5 cm beheko eta eskumako ertzean. Testu prozesatzaileak berez dituenak ere erabil daitezke: 2,54 cm lau ertzetarako.
- Koska jarriko da (0,5-1,25) paragrafoaren hasieran eta aipamen luzeetan.

- Letra etzana erabiliko da liburuen eta beste agiri batzuen izenburuetarako, bai eta beste hizkuntza batzuetan idatzitako terminoetarako ere.
- Azpimarra erabiliko da atalen izenburuak eta goiburuak nabarmentzeko.
- Letra lodia izenburuetarako.
- Izenburuak zenbakituta joango dira edukia hobeto ulertzeko. Letra etzana erabiliko da eta ezkerretara lerrokatuta egongo dira.

4.- MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

A) Ikerketa lerroa zehaztea eta eskaintza egitea: MALaren zuzendariak egin beharreko lehenengo zeregina da ikerketa lerroa zehaztea. Bere jakintza arloa kontuan hartuta eta ikerketan eta irakaskuntzaren arloan izan duen esperientzia, ikerketa lerroen epigrafeak edo nondik norakoak azalduko ditu, zehatz eta argi (oro har, lerro bat edo bi). Irakasle bakoitzak gehienez ere hiru MAL zuzendu ahal izango ditu. Fase hori bukatutzat emango da ikasleei helarazten dienean ikerketa lerroak jasota dituen agiria.

MALerako gaia bilatzeko lana behin hasita eta bukatu arte, zuzendariaren eginkizunak, ikasleak egin beharreko lanari dagokionez, segidako hiru faseetan banatzen dira:

B) 1. fasea edo alde aurretikoa: Ikasleari proposatzea gizarte eta hezkuntza eremuan garrantzitsuak diren arazo eta gaiak, ikasketetan lortutako gaitasunak erabilita arloan sakontzeko aukera emango diotenak. Fase honetan, eskaintako ikerketa lerroei buruzko informazio eskatzen duten ikasle guztiei erantzungo zaie, eta fasea bukatuko da "Master Amaierako Lanaren Gaia" izeneko agiriak (behar beste agiri) sinatu eta aurkezten direnean. Agiri horiek aurkeztean erabat finkatuta geratuko da irakasle eta ikaslearen arteko lankidetzak.

C) 2. fasea edo lana egitea: Fase honen hasieran komenigarria da irakasleak jakitea zein izango den bere zuzendaritzapeko ikasle bakoitzak lana egiteko izango duen kronograma, hartara jakin ahal izango baitu ikaslea zein heinean ari den emaitzak lortzen. Fase honetan egin behar da lanik handiena. Zuzendariak ikaslearen lana gidatu beharko du eta jarraipena egin; egutegia zorrotz bete beharko du eta betearazi beharko dio ikasleari, egin beharrekoak egiteko eta aurkeztu beharrekoak aurkezteko, eta bigarren lauhilekoan, aurrez aurreko hiru tutoretza egin beharko ditu gutxienez. Hiru tutoretza horiek fase honetan zehaztuko den kronograman jasota ageri beharko dira. Fase hau amaituko da ikasleak master amaierako lana ematen dioenean zuzendariari.

D) 3. fasea edo azken fasea: MALa kalifikatzea (gai edo ez gai) eta defentsarako prest dagoen erabakitzea, horretarako zehaztutako epearen barruan.

Zuzendariaren ustez MALa defentsa egiteko moduan badago, ikasleari bueltatuko dio ikaslea defentsa prestatzen has dadin (lanarekin batera 5. eranskina, beteta, emango dio "MALaren Egokitasunari buruzko Txostena"). Eranskin horretan, labur, MALaren kalitatea arrazoituko du eta adieraziko du defentsarako prest dagoen edo ez. Agiri horrek jatorrizko sinadurak izan beharko ditu eta masterreko idazkaritzara bidali beharko da kopia digitala.

Zuzendariaren ustez lana ez badago prest defentsarako, berdin-berdin bete beharko du 5. eranskina eta bere erabakia arrazoitu; horrelakoetan, mezu ofiziala bidali beharko du masterreko idazkaritzara, agiri horren kopia digitala erantsita (ikasleari mezuaren kopia (cc) bidali beharko dio).

Fase hau amaitzen da MALa defentsarako prest dagoela jasotzen duen txostena aurkezten denean. Ezin izango da MALaren defentsa egin zuzendariaren aldeko txostena izan gabe.

Ikaslearekin egin beharreko lana behin bukatuta, zuzendariaren lanetako bat izango da ebaluazio eta kalifikazio prozesuaren jarraipena egitea, bai berak gidatutako lanena, zein beste irakasle batzuenak.

E) MALa defendatu aurretik ebaluazio txostena egitea. Epaimahaikoei ikaslearen lana eta 6. eranskina ("MALaren Ebaluazio Txostena") eman beharko dizkie. Txosten horretan MALaren kalitateari buruzko iritzia arrazoituko du, eta bere ustez MALa egiteko fasean ikasleak merezi duen nota adieraziko die epaimahaikoei (zenbaki bidez adierazia). Nota hori gutxi gorabeherakoa baino ez da izango, eta ez ditu bilduko lana aurkeztu eta defendatzeari buruzko arloak.

F) Epaimahaiei laguntza ematea eta lanak kalifikatzea. Epaimahai bakoitza hiru kidez osatua egongo da; beraz, lanaren zuzendariak berak zuzendutako lan kopurua halako hiru epaitu ahal izango ditu. **MALak 2019ko ekainaren 17tik 20ra bitartean eta irailaren 16tik 18ra bitartean defendatuko dira; beraz, data horiek masterreko eskolaldiaren barruan daudenez, masterreko irakasle guztiak daude lan hori betetzeko moduan.** Epaimahaien osaera eta datak denbora nahikoaz jakinaraziko dira.

5.- MASTER AMAIERAKO LANA DEFENDATZEKO BETE BEHARREKOAK

Aipatutako lanak behin eginda eta epeak agortuta, MALa defendatu behar da. Defentsa jendaurrekoa izango da, epaimahai baten aurrean. Defentsa egiteko, baina, zenbait baldintza bete behar dira, eta aipatu ditugun arren, hona hemen baldintzok laburbilduta:

1. Gainditua izatea masterreko ikasketa planeko gainontzeko irakasgaietako kreditu guztiak.
2. MALeko zuzendariak masterreko idazkaritzan aurkeztuta izatea lanaren aldeko txostena (5. eranskina).
3. Ikasleak masterreko idazkaritzan aurkeztuta izatea lanaren kopia bat pdf-an. Horretarako epea 2018ko maiatzaren

28tik ekainaren 21era edo irailaren 3tik 7ra bitartekoa izango da. Zuzendariari kopia bat eman beharko dio pdf formatuan. Ekainaren 5a edo irailaren 11a baino lehen, zuzendariak MALaren pdf artxiboa bidaliko die epaimahaiko kidei, eta horrekin batera berak egindako ebaluazioa (6. eranskina).

Ezin izango da lanaren defentsa egin hiru baldintza horiek bete gabe.

6.- MASTER AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIOA ETA DEFENTSA

Defentsa jendaurrekoa izango da eta masterra ematen den lekuan egingo da. Ekitaldiaren data denbora nahikoaz jakinaraziko da. Ikasleak behar dituen ikus-entzunezko ohiko baliabideak izango ditu eskura, eta ekitaldiak gutxienez 30 minutu eta gehienez 45 iraungo du.

Ondokoak dira ebaluaziorako erabiliko diren oinarrizko irizpideak (6. eranskinean daude jasota):

- 1- Egindako lanaren kalitatea eta zuzentasun akademikoa: helburu argiak, edukiaren garrantzia, metodologia eta bibliografia egokia, eta proposamena gauzatzeko aukerak.
- 2- Berrikuntzarekin edo, egoki bada, ikerketarekin daukan konpromisoa.
- 3- Ikaslearen inplikazioa lana egitean: masterreko gaien arteko lotura eta zein heinean lortu dituen gaitasun profesionalak eta ikerketarakoak.
- 4- Epaimahaiaren aurrean lana aurkeztea eta defendatzea: ikasleak komunikaziorako daukan trebetasuna.

MALa epaimahaiaren aurrean aurkeztuko da horretarako adierazitako epean, **2019ko ekainaren 17tik 20ra edo irailaren 16tik 18ra** (7. eranskineko protokoloari jarraituz).

Epaimahaiak hiru kide izango ditu MALen zuzendarien artetik aukeratuak. Epaimahaiburua MALaren zuzendaria izango da eta

mahaikideak, gainontzeko zuzendarien artetik aukeratuak. Ezinbesteko kasuetan eta behar bezala arrazoituta, izendatutako hiru kideetako birekin bakarrik osatu ahal izango da epaimahaia.

Ikasleak defentsa egin ondoren, kontuan hartuta epaimahaiak idatzitako lanei buruz duen iritzia eta zuzendariak berak proposatutako kalifikazioa, MALari nota jarriko zaio, 5etik 10era bitartekoa hamartar bat erabilita, eta kalifikazio kualitatiboa ere zehaztuko da.

- 5,0 – 6,9 Nahikoa
- 7,0 - 8,9 Oso ongi
- 9,0 – 10 Bikain

Kalifikazio akta epaimahaiko hiru kideek sinatuko dute; defentsa egin ostean epaimahaiak tarte bat izango du kalifikazioa erabakitzeko, eta jarraian jakinaraziko zaio ikasleari (7. eranskineko protokoloari jarraituz).

MALa ezin izango da gainditutzat eman ikasleak ez badu adierazitako egunean eta eran defendatu.

7.- 2016/17 IKASTURTEKO EGUTEGI LABURBILDUA

1. **2018ko abenduaren 16ra arte:** gaia zehazteko aldia eta agiriak aurkeztekoa.
2. **2018ko abenduaren 21era arte:** "Eskaria: Master Amaierako Lanerako Gaia" agiria (1. eranskina) aurkezteko eguna.
3. **2019ko urtarrilaren 27a:** "Master Amaierako Lanaren Nondik Norakoak" agiria (2. eranskina) aurkezteko azken eguna.
4. **2019ko Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra:** "MALaren Gaitasun Txostena" izeneko agiria (5. eranskina) aurkezteko epea; aldekoa izanez gero, MALa ere aurkeztu beharko da.
5. **2019ko Ekainaren 17tik 20era:** MALaren defentsa.

6. 2019ko Irailaren 2tik 8ra: "MALaren Gaitasun Txostena" izeneko agiria (5. eranskina) aurkezteko epea; aldekoa izanez gero, MALa ere aurkeztu beharko da.

7. 2019ko Irailaren 16tik 18ra: MALaren defentsa.

8. ERANSKINAK

1. ERANSKINA (*Eskaria: Master Amaierako Lanerako Gaia*)
2. ERANSKINA (Master Amaierako Lanaren Nondik Norakoak)
3. ERANSKINA (Azala)
4. ERANSKINA (Bibliografia Idazteko Jarraibideak)
5. ERANSKINA (MALaren Egokitasunari buruzko Txostena)
6. ERANSKINA (MALaren Ebaluazio Txostena)
7. ERANSKINA (Master Amaierako Lana Defendatzeko Protokoloa)
8. ERANSKINA (MALaren Defentsa Ebaluatzeko Irizpideak)

1. eranskina.- "ESKARIA: MASTER AMAIERAKO LANERAKO GAIA"



Unibertsitate Masterra: Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa
Máster Universitario en Investigación en Ámbitos Socioeducativos

ESKARIA: MASTER AMAIERAKO LANERAKO GAIA ESKAKIZUNA SOLICITUD DE TEMA TRABAJO FIN DE MÁSTER

Izen-abizenak /Nombre y Apellidos:	
NAN/D.N.I.:	
Telefonia: Teléfono:	Posta-e: e-mail:

ESKATZEN DU/SOLICITA¹

Master Amaierako Lana egitea

La realización del Trabajo Fin de Máster

	GAIA/TEMA	SAILA/MALaren ZUZENDARIA DPTO. /DIRECTOR TFM
1. aukera 1ª Opción		
2. aukera 2ª Opción		
3. aukera 3ª Opción		

Donostia, 201_(e)ko ____aren ____ (a) / San Sebastián a ____ de ____ de 201_

¹ WEB orrian zehaztutako eskaintzatik aukeratzeko (prozedura eta proposamenak) /A elegir de la oferta presentada en WEB (procedimiento y propuestas)

2. eranskina.- "MASTER AMAIERAKO LANAREN NONDIK NORAKOAK"



Unibertsitate Masterra: Gizarte eta
Hezkuntzako Eremuen Ikerketa
Máster Universitario en Investigación en Ámbitos
Socioeducativos

MASTER AMAIERAKO LANAREN DESKRIBAPENA- 2018-19 DESCRIPCIÓN DEL TRABAJO FIN DE MÁSTER - 2018-19

Izen-abizenak /Nombre y Apellidos:

NAN/D.N.I.:

MALaren zuzendaria:

Director TFM:

GUTXI GORABEHERAKO IZENBURUA / TITULO ORIENTATIVO:

--

LABURPENA (Gehienez 15 lerro) / RESUMEN (Máximo 15 líneas):

--

ONIRITZIA/CONFORMIDAD

Ikaslearen sinadura
Firma del alumno

Zuzendariaren sinadura
Firma del Director/a

Donostia, 201_(e)ko _____aren _____(a) / San Sebastián a _____de _____de 201_

3. eranskina.- AZALA



UNIBERTSITATE MASTERRA: GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO EREMUEN IKERKETA MASTER AMAIERAKO LANA "IZENBURUA"

EGILEA: (IZEN-ABIZENAK)

NAN zk.:

ZUZENDARIA: Izen-abizenak. Saila.

IKASTURTEA: 2018/19

4. eranskina.- "BIBLIOGRAFIA IDAZTEKO JARRAIBIDEAK"

Erreferentzia bibliografikoak, testu barrukoak zein bukaerakoak, hurrenkera alfabetikoan jaso behar dira. Egile beraren erreferentziak argitalpen urtearen arabera ordenatu behar dira, zaharrenetik oraintsukora. Egile bakarraren erreferentziak egile askoren artean egindako lanen aurretik aipatu behar dira, abizena bera denean. Egile berak urte berean argitalpen bat baino gehiago egin badu, erreferentzia hori egiterakoan letrak idazten dira, xehez, argitalpen urtearen alboan eta parentesia itxi aurretik. Zortzi egile edo gehiago badira, lehenengo seiak aipatzen dira, ondoren hiru etenpuntu eta azken egilearen izena.

Testu barruan, egileak bi direnean, beti biak aipatzen dira. Hiru edo gehiago direnean, berriz, lehenengo aldiz aipatzean hirurak idazten dira, baina hurrengoetan, lehenengo egilea baino ez ondoren "et al" idatzita. Bost egile baino gehiago direnean, beti lehenengo egilea bakarrik "et al" idatzita ondoren.

Zenbait adibide:

Liburuak:

Pérez, R. (1990). *Cambio conceptual*. Bilbao: Landa.

López, C., Mora, L., eta Fernández, M. (1991). *Aprendizaje*. Madrid: Sosa.

Liburuaren kapitulua:

Lukin, F. (1993). Los contenidos curriculares. In H. Hernández (Ed.), *La escuela a examen* (32-60 orr.). Bilbao: Nervión.

Aldizkarietako artikuluar:

Idiakez, I. (1995). Instrucción y emoción. *Intercambio Científico*, 31(6), 16-24.

Agiri elektronikoak eta Interneteko loturak:

Agiriaren aipamen zehatza egin ondoren, kontsulta noiz egin zen adierazi behar da eta URLa: [<http://www.ehu.es/dabil/col.htm>] (04/05/30ean kontsultatua).

Nola egin aipamena:	Dávila, P. eta Naya, L.M. (2011). La defensa de los derechos de la infancia en América Latina. Una visión educativa. <i>Educación XX1</i> , 14. liburukia, 1. zk., 201-221 orr. Helbide honetan: http://www.uned.es/educacionXX1/pdfs/14-01-09.pdf (2012/09/30ean kontsultatua)
----------------------------	---

5. eranskina.- "MALaren EGOKITASUNARI BURUZKO TXOSTENA"



Unibertsitate Masterra: Gizarte eta
Hezkuntzako Eremuen Ikerketa
Máster Universitario en Investigación en Ámbitos
Socioeducativos

MALAREN EGOKITASUNARI BURUZKO TXOSTENA 2018-19 INFORME DE APTITUD DEL TFM 2018-19

Izen-abizenak/Nombre y Apellidos:

NAN/D.N.I.:

MALaren zuzendaria:

Director TFM

IZENBURUA / TITULO

--

ZUZENDARIAREN ERABAKIA / CALIFICACIÓN DIRECTOR/A

Markatu egokia dena /Resaltar lo que proceda

**Baimena ematen dut defentsa
egiteko**
Se autoriza su defensa

**Ez dut baimenik ematen
defentsa egiteko**
No se autoriza su defensa

TXOSTENA / INFORME

--

ZUZENDARIAREN ERABAKIA / CALIFICACIÓN DIRECTOR/A

Sinadura / Firma

Donostia, 201_(e)ko _____aren ____ (a) / San Sebastián a ____ de _____ de 201_

6. eranskina.- "MALaren EBALUAZIO TXOSTENA"



Unibertsitate Masterra: Gizarte eta
Hezkuntzako Eremuen Ikerketa

Máster Universitario en Investigación en Ámbitos
Socioeducativos

MALAREN EBALUAZIO TXOSTENA INFORME DE EVALUACION DEL TFM

MALa EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

1.- PLANTEAMENDUA ETA GARAPENA (%60)

IKERKETAREN GAIA	1	2	3	4	5
- Espezialitaterako daukan interesa/garrantzia					
- Originaltasuna					
- Zailtasuna					
IKERKETAREN HELBURUAK	1	2	3	4	5
- Ikerketako gaiarekin daukaten koherentzia					
- Marko teorikoaren ikuspegitik daukaten garrantzia					
- Formulatzeko era					
IKERKETAREN METODOLOGIA	1	2	3	4	5
- Proposatutako helburuen egokitasuna					
- Aukeratutako metodologia aplikatzerakoan izandako zorrotasuna					
- Zailtasuna					
- Originaltasuna					
LANAREN EGITURA	1	2	3	4	5
- Planteamenduaren, garapenaren eta ondorioen arteko koherentzia					
- Ondo eta argi egituratua					
- Zatien hurrenkera logikoa ikerketaren helburuak kontuan hartuta					
- Lanaren zatien arteko oreka kontuan hartuta proposatutako helburuak					
ONDORIOAK:	1	2	3	4	5
- Ondorio egokiak kontuan hartuta helburuak, metodologia eta egitura (garapena)					
- Ondorio ondo arrazoituak					
- Marko teorikoaren ikuspegitik daukaten garrantzia					

- Ekarpinak etorkizunean egin daitezkeen beste azterlan batzuetarako					
ERABILITAKO ITURRIAK	1	2	3	4	5
- Egokitasuna (edukia, kalitatea)					
- Gaurkotasuna					
- Zailtasuna (topatzeko, hizkuntza, ulertzeko zailtasuna)					

2.- LAN IDATZIAREN ZUZENTASUNA (%20)

LANAREN ALDERDI FORMALAK	1	2	3	4	5
- MALa egiteko gida honi zein heinean jarraitu zaion					
- Hizkuntzaren erabilera zuzena					
- Ortografia					
- Generoaren erabilera					
- Argitasuna azalpenetan					
- Lanaren luzera					

4.- IKASLEAREN JARRERA (%10)

IKASLEAREN JARRERA	1	2	3	4	5
- Ikasleak ikerketa lana egiterakoan izan duen motibazioa					
- Zuzendariaren iradokizunei zein heinean jarraitu dien					
- Ekarpin bibliografikoak, metodologikoak... ikasleak berak egindakoak (autonomia)					
- Erregulartasuna					
- Analisi eta sintesi gaitasuna					
- Iritzi kritikoa					
- Ordena eta zorrozatasuna					
- Jakin-mina					
- Lana espezialitateko gai nagusietarantz bideratzeko interesa					

➤ OHARRAK:

--

7. eranskina.- “MALa DEFENDATZEKO PROTOKOLOA”



Unibertsitate Masterra: Gizarte eta
Hezkuntzako Eremuen Ikerketa

Máster Universitario en Investigación en Ámbitos
Socioeducativos

MASTER AMAIERAKO LANAK DEFENDATZEKO OINARRIZKO PROTOKOLOA

..... ikasleak *Gizarte eta Hezkuntza Eremuen Ikerketa* izeneko unibertsitate masterra lortzeko lana defendatuko du. Lanaren izenburua da eta irakaslearen zuzendaritzapean egin du.

Ikasleak 15-20 minutu ditu lanaren ondorioak eta punturik garrantzitsuenak azaltzeko. Ondoren, epaimahaiko buruak galdera txanda bideratuko du eta epaimahaiko bi kideei emango die hitz egiteko aukera.

Amaitzeko, epaimahaiko buruak bukatutzat emango ditu hitz egiteko txandak eta galderak egingo dizkio ikasleari.

Galderak behin amaituta, epaimahaiburuak gelan daudenei irteteko eskatuko die eta epaimahaiak kalifikazioa zehaztuko du. Epaimahaiak lan hori bukatzean, bertaratuei gelan sartzeko aukera emango zaie eta ikasleari kalifikazio jakinaraziko zaio jendaurrean.

8. eranskina.- "DEFENTSA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK"

Defentsa.

AHOZKO AURKEZPENA (%10)

AHOZKO AURKEZPENA ETA EPAIMAHAIAR EGINDAKO GALDEREI EMANDAKO ERANTZUNAK	1	2	3	4	5
- Protokolo akademikoko oinarritzko arauak (HASTEKO eta AMAITZEKO ERA)					
- Azalpen argiak					
- Hizkuntzaren erabilera zuzena					
- Sintesirako gaitasuna					
- Arrazoitzeko gaitasuna					
- Gaiaren arloko ezagupenak					
- Lan idatzian azaldutakoarekiko fideltasuna					
- Ekarpen berritzaileak eta sortzaileak (ereduak, irudiak, taulak...)					
- Ikus-entzunezkoen edo beste baliabide batzuen laguntza ahozko aurkezpena egiteko					